

## Xedapen Orokorrak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3369

133/2011 DEKRETUA, ekainaren 28koa, Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22an onartutako akordioa onartzen duena. Akordio horren arabera, osatu egiten da irailaren 26ko eta abenduaren 30eko 2808/1980 eta 3195/1980 Errege Dekretuen bidez gauzatutako unibertsitatez kanpoko hezkuntzaren arloan Estatuko Administrazioa Euskal Autonomia Erkidegoari egindako zerbitzuen eskualdaketa, zerbitzu horiei atxikitako bitartekoak gehituz (erlijio-irakasleak).

Dekretu honen xedea bikoitza da: alde batetik, ekainaren 24ko 892/2011 Errege Dekretuaren bidez Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22an onartutako akordioa onartzea eta argitaratzeko agintzea; eta, beste aldetik, eskualdatutako zeregin eta zerbitzuak dagokionari atxikitzea. Akordio horren arabera, osatu egiten da irailaren 26ko eta abenduaren 30eko 2808/1980 eta 3195/1980 Errege Dekretuen bidez unibertsitatez kanpoko hezkuntzan Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari egindako eskualdaketa, zerbitzuei atxikitako bitartekoak gehituz (erlijio irakasleak). Hori guztia, gainera, irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuaren bidez Transferentzien Bitariko Batzordeak onartutako Akordioaren 2. artikulua arabera eta Errege Dekretu horretan agintzen diren formalizazio-izapideak betetze aldera.

Horregatik guztiagatik, Transferentzien Bitariko Batzordeko presidenteordea den Herrizaingoko sailburuaren proposamenez, Lehendakariak onartu ondoren, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko ekainaren 28an egindako bileran kontu hori aztertu eta onartu zuela ikusita, honakoa

XEDATZEN DUT:

**1. artikulua.**– Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22an onartutako akordioa onartzea, ekainaren 24ko 892/2011 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera. Akordio horrek osatu egiten du irailaren 26ko eta abenduaren 30eko 2808/1980 eta 3195/1980 Errege Dekretuen bidez unibertsitatez kanpoko hezkuntzan Estatuko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoari egindako eskualdaketa, zerbitzuei atxikitako bitartekoak gehituz (erlijio-irakasleak).

Era berean, agintzen da aipatutako Errege Dekretua, dekretu honen eranskin gisa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila osorik.

## Disposiciones Generales

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

3369

DECRETO 133/2011, de 28 de junio, por el que se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de 22 de junio de 2011, sobre ampliación de medios adscritos a los servicios de la Administración del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por los Reales Decretos 2808/1980 y 3195/1980, de 26 de septiembre y 30 de diciembre, en materia de enseñanza no universitaria (profesorado de religión).

El presente Decreto tiene un doble objeto: de una parte, aprobar el Acuerdo de la sesión de 22 de junio de 2011 del Pleno de la Comisión Mixta de Transferencias, aprobado por el Real Decreto 892/2011, de 24 de junio, así como disponer su publicación; por otro lado, este Decreto procede a adscribir los servicios y las funciones transferidas en el citado Acuerdo. En virtud de dicho Acuerdo se procede a la ampliación de medios adscritos a los servicios de la Administración del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por los Reales Decretos 2808/1980 y 3195/1980, de 26 de septiembre y 30 de diciembre, en materia de enseñanza no universitaria (profesorado de religión). Todo ello de acuerdo a lo dispuesto en el artículo 2 del Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias, aprobado por Real Decreto 2339/1980, de 26 de septiembre, y a los efectos del cumplimiento de los trámites de formalización requeridos en el mismo.

Por todo lo cual, a propuesta del Consejero de Interior en su calidad de Vicepresidente de la Comisión Mixta de Transferencias, previa aprobación de la Presidencia, y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 28 de junio de 2011,

DISPONGO:

**Artículo 1.**– Aprobar el Acuerdo de la Comisión Mixta de Transferencias de 22 de junio de 2011 en los términos establecidos por el Real Decreto 892/2011, de 24 de junio. A través de dicho Acuerdo se procede a la ampliación de medios adscritos a los servicios de la Administración del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por los Reales Decretos 2808/1980 y 3195/1980, de 26 de septiembre y 30 de diciembre, en materia de enseñanza no universitaria (profesorado de religión).

Asimismo, se ordena su publicación íntegra en el Boletín Oficial del País Vasco como anexo al presente Decreto.

**2. artikulua.**— Eskualdatutako zeregin eta zer-bitzuak gai horretan eskumena duten sailei atxikita geldituko dira.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko ekainaren 28an.

Lehendakaria,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Herrizaingoko sailburua eta Transferentzien Bitariko Batzordeko presidenteordea,  
RODOLFO ARES TABOADA.

EKAINAREN 28KO 133/2011 DEKRETUAREN  
ERANSKINA  
892/2011 ERREGE DEKRETUA, EKAINAREN 24KOA,  
IRAILAREN 26KO ETA ABENDUAREN 30EKO  
2808/1980 ETA 3195/1980 ERREGE DEKRETUEN  
BIDEZ GAUZATUTAKO UNIBERTSITATEZ  
KANPOKO HEZKUNTZAREN ARLOKO  
ZERBITZUEN ESKUALDAKETA ZERBITZU  
HORIEI ATXIKITAKO BITARTEKOAK GEHITUZ  
(ERLIJIO-IRAKASLEAK) OSATZEKO DENA.

Konstituzioaren 149.1.30. artikulua dio estatua-ren eskumen eskusiboa dela «titulu akademikoak eta lanbide-tituluak eskuratu, eman eta homologatzeko baldintzak arautzea, eta Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarritzko arauak ematea, botere publikoek alor horretan dituzten betebeharrak betetzen direla bermatzeko».

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onartutako Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak 16. artikuluan xedatzen du irakaskuntza bere zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena dela, Konstituzioaren 27. artikuluari eta hura zehaztuko duten Lege Organikoei, haren 149.1.30. artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta hori betetzeko eta bermatzeko behar den goi-ikuskaritzari kalterik egiteke.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, hirugarren xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan, hau xedatzen du: «funtzionario irakasleen kidegoetakoak ez diren eta ikastetxe publikoetan erlijioen irakaskuntza ematen duten irakasleek administrazio eskudunekiko lan-kontratazioko erregimenean jardungo dute, Langileen Estatutuari jarraiki» eta «Lan-erregimena irakasleen ordezkarien parte-hartzearekin arautuko da». Ekainaren 1eko 696/2007 Errege Dekretuak 2/2006 Lege Organiko-

**Artículo 2.**— Las funciones y los servicios transferidos quedarán adscritos a los departamentos competentes en la materia.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de junio de 2011.

El Lehendakari,  
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

El Consejero de Interior y Vicepresidente de la Comisión Mixta de Transferencias,  
RODOLFO ARES TABOADA.

ANEXO AL DECRETO 133/2011, DE 28 DE JUNIO REAL DECRETO 892/2011, DE 24 DE JUNIO, SOBRE AMPLIACIÓN DE MEDIOS ADSCRITOS A LOS SERVICIOS DE LA ADMINISTRACIÓN DEL ESTADO TRASPASADOS A LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO POR LOS REALES DECRETOS 2808/1980 Y 3195/1980, DE 26 DE SEPTIEMBRE Y 30 DE DICIEMBRE, EN MATERIA DE ENSEÑANZA NO UNIVERSITARIA (PROFESORADO DE RELIGIÓN)

El artículo 149.1.30.<sup>a</sup> de la Constitución reserva al Estado la competencia exclusiva sobre la regulación de las condiciones de obtención, expedición y homologación de títulos académicos y profesionales y normas básicas para el desarrollo del artículo 27 de la Constitución, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones de los poderes públicos en esta materia.

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, establece en su artículo 16 que corresponde a la Comunidad Autónoma la competencia en enseñanza en toda su extensión, niveles y grados, modalidades y especialidades, sin perjuicio del artículo 27 de la Constitución y leyes orgánicas que lo desarrollen, de las facultades que atribuye al Estado el artículo 149.1.30.<sup>a</sup> de la misma y de la alta inspección necesaria para su cumplimiento y garantía.

La Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, en su disposición adicional tercera, apartado 2, establece que «los profesores que, no perteneciendo a los cuerpos de funcionarios docentes, impartan la enseñanza de las religiones en centros públicos lo harán en régimen de contratación laboral, de conformidad con el Estatuto de los Trabajadores, con las respectivas Administraciones competentes» y que «la regulación de su régimen laboral se hará con la participación de los representantes del profesorado».

aren hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako erlijio-irakasleen lan-harremana arautzen du.

Horrez gain, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako funtzioak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion, irailaren 26ko 2808/1980 eta abenduaren 30eko 3195/1980 Errege Dekretuen bidez, baina ez zen bildu haur- eta lehen-hezkuntzako ikastetxe publikoetako erlijio-irakasleak eskualdatzerik.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak ezartzen dituzte Estatuaren Administrazioaren zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko modua eta prozedura.

Horiek horrela, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak aurreikusitako Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22ko osoko bilkuran akordioa lortu zuen irailaren 26ko eta abenduaren 30eko 2808/1980 eta 3195/1980 Errege Dekretuen bidez gauzaturako unibertsitatez kanpoko hezkuntzaren arloko zerbitzuen eskualdaketa osatzeko, zerbitzu horiei atxikitako bitartekoak gehituz (erlijio-irakasleak). Akordio hori gauzatzeko Gobernuak errege-dekretu bidezko onarpena eman behar du.

Hori dela-eta, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa betetzeko, Lurralde Politika eta Administrazio Publikoko ministroaren proposamenez eta Ministroen Kontseiluak 2011ko ekainaren 24ko bileran eztabaiatu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

**1. artikulua.**– Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aipatzen den Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22ko osoko bilkuran onartutako akordioa onartzen da. Akordio horren arabera, osatu egiten da irailaren 26ko eta abenduaren 30eko 2808/1980 eta 3195/1980 Errege Dekretuen bidez gauzaturako unibertsitatez kanpoko hezkuntzaren arloko zerbitzuen eskualdaketa, zerbitzu horiei atxikitako bitartekoak gehituz (erlijio-irakasleak). Errege-dekretu honen eranskin gisa dator akordioaren testua.

**2. artikulua.**– Horrenbestez, Euskal Autonomia Erkidegoaren esku geratzen da Transferentzien Bitariko Batzordearen akordioan agertzen den pertsonala, bertan zehazten diren moduan eta baldintzetan.

**3. artikulua.**– Transferentzien Bitariko Batzordearen akordioan adierazitako egunetik aurrera izango du eragina osatze honek.

El Real Decreto 696/2007, de 1 de junio, regula la relación laboral de los profesores de religión prevista en la citada disposición adicional tercera de la Ley Orgánica 2/2006.

Además, por los Reales Decretos 2808/1980 y 3195/1980, de 26 de septiembre y 30 de diciembre respectivamente, se efectuaron los traspasos de las funciones y servicios a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de enseñanza no universitaria, en el que no se recogía el traspaso del profesorado de religión en centros públicos de educación infantil y primaria.

La disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco y el Real Decreto 2339/1980, de 26 de septiembre, establecen la forma y el procedimiento a que han de ajustarse los traspasos de servicios de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Comisión Mixta prevista en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco adoptó, en su reunión del día 22 de junio de 2011, un acuerdo sobre ampliación de medios adscritos a los servicios de la Administración del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por los Reales Decretos 2808/1980 y 3195/1980, de 26 de septiembre y 30 de diciembre, en materia de enseñanza no universitaria (profesorado de religión), cuya virtualidad práctica exige su aprobación por el Gobierno mediante real decreto.

En su virtud, en cumplimiento de lo dispuesto en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, a propuesta del Ministro de Política Territorial y Administración Pública y previa deliberación del Consejo de Ministros en su reunión del día 24 de junio de 2011,

#### DISPONGO:

**Artículo 1.**– Se aprueba el Acuerdo de la Comisión Mixta prevista en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, sobre ampliación de medios adscritos a los servicios de la Administración del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por los Reales Decretos 2808/1980 y 3195/1980, de 26 de septiembre y 30 de diciembre, en materia de enseñanza no universitaria (profesorado de religión), adoptado por el Pleno de dicha Comisión en su sesión del 22 de junio de 2011, y que se transcribe como anexo de este Real Decreto.

**Artículo 2.**– En consecuencia, queda traspasado a la Comunidad Autónoma del País Vasco el personal que figura en el acuerdo de la Comisión Mixta, en los términos y condiciones que allí se especifican.

**Artículo 3.**– La ampliación será efectiva a partir de la fecha señalada en el acuerdo de la Comisión Mixta.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean sartzea.

Errege-dekretu hau aldi berean argitaratuko da «Estatuko Aldizkari Ofizialean» eta «Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian» eta argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

EKAINAREN 24KO 899/2011 ERREGE  
DEKRETUAREN ERANSKINA  
TRANSFERENTZIEN BITARIKO BATZORDEAREN  
2011KO EKAINAREN 22KO AKORDIOA

Antonio Lopez Soto eta Juan Ignacio Urresola Arechabala jaunek, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Transferentzien Bitariko Batzordeko idazkariak honako hau

ZIURTATZEN DUTE

Transferentzien Bitariko Batzordeak 2011ko ekainaren 22ko osoko bilkuran akordioa lortu zuela irailaren 26ko eta abenduaren 30eko 2808/1980 eta 3195/1980 Errege Dekretuen bidez gauzatuak uni-bertsitatez kanpoko hezkuntzaren arloko zerbitzuen eskualdaketara osatzeko, zerbitzu horiei atxikitako bitartekoak gehituz (erlijio-irakasleak). Osatze hori honela egin beharko da:

A) Eskualdaketaren oinarri diren arauak.

Konstituzioaren 149.1.30. artikulua dio estatutaren eskumen eksklusiboa dela «titulu akademikoak eta lanbide-tituluak eskuratu, eman eta homologatzeko baldintzak arautzea, eta Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarritzko arauak ematea, botere publikoek alor horretan dituzten betebeharrak betetzen direla bermatzeko».

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onartutako Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak 16. artikuluan xedatzen du irakaskuntza bere zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena dela, Konstituzioaren 27. artikuluari eta hura zehaztuko duten Lege Organikoei, haren 149.1.130. artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta hori betetzeko eta bermatzeko behar den goi-ikuskaritzari kalterik egiteke.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege organikoak, hirugarren xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan, hau xedatzen du: «funtzionario irakasleen kidegoetakoak ez diren eta ikastetxe publikoetan erlijioen irakaskuntza ematen duten irakasleek administrazio eskudunekiko lan-kontratazioko erregimenean jardungo dute, Langileen Estatutuari jarraiki» eta «Lan-erregimena irakasleen ordezkarien parte-hartzearekin

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor.

Este Real Decreto será publicado simultáneamente en el Boletín Oficial del Estado y en el Boletín Oficial del País Vasco, adquiriendo vigencia el día siguiente al de su publicación.

ANEXO AL REAL DECRETO 892/2011, DE 24 DE  
JUNIO  
ACUERDO DE LA COMISIÓN MIXTA DE  
TRANSFERENCIAS DE 22 DE JUNIO DE 2011

D. Antonio López Soto y D. Juan Ignacio Urresola Arechabala, Secretarios de la Comisión Mixta prevista en la disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía del País Vasco,

CERTIFICAN:

Que en el Pleno de la Comisión Mixta celebrado el día 22 de junio de 2011, se adoptó un Acuerdo sobre ampliación de medios adscritos a los servicios de la Administración del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma del País Vasco por los Reales Decretos 2808/1980 y 3195/1980, de 26 de septiembre y 30 de diciembre, en materia de enseñanza no universitaria (profesorado de religión), en los términos que a continuación se expresan:

A) Normas en las que se ampara el traspaso.

El artículo 149.1.30.<sup>a</sup> de la Constitución reserva al Estado la competencia exclusiva sobre la regulación de las condiciones de obtención, expedición y homologación de títulos académicos y profesionales y normas básicas para el desarrollo del artículo 27 de la Constitución, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones de los poderes públicos en esta materia.

El Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, establece en su artículo 16 que corresponde a la Comunidad Autónoma la competencia en enseñanza en toda su extensión, niveles y grados, modalidades y especialidades, sin perjuicio del artículo 27 de la Constitución y leyes orgánicas que lo desarrollen, de las facultades que atribuye al Estado el artículo 149.1.30.<sup>a</sup> de la misma y de la alta inspección necesaria para su cumplimiento y garantía.

La Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, en su disposición adicional tercera, apartado 2, establece que «los profesores que, no perteneciendo a los cuerpos de funcionarios docentes, imparten la enseñanza de las religiones en centros públicos lo harán en régimen de contratación laboral, de conformidad con el Estatuto de los Trabajadores, con las respectivas Administraciones competentes» y que

arautuko da». Ekainaren 1eko 696/2007 Errege Dekretuak 2/2006 Lege Organikoaren hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusitako erlijio-irakasleen lan-harremana arautzen du.

Horrez gain, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzako funtzioak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zitzaizkion, irailaren 26ko 2808/1980 eta abenduaren 30eko 3195/1980 Errege Dekretuen bidez, baina ez zen biltzen haur- eta lehen-hezkuntzako ikastetxe publikoetako erlijio-irakasleak eskualdatzerik.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren bigarren xedapen iragankorrak eta irailaren 26ko 2339/1980 Errege Dekretuak ezartzen dituzte Estatuaren Administrazioaren zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeko modua eta prozedura.

Konstituzioko eta Estatutuko aurreikuspen hauek oinarri hartuta, eskualdaketa egin behar da irailaren 26ko eta abenduaren 30eko 2808/1980 eta 3195/1980 Errege Dekretuen bidez eskualdatutako giza baliabideak gehituta.

B) Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatuko zaizkion bitartekoak.

Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio Autonomia Erkidegoko haur- eta lehen-hezkuntzako ikastetxeetan lan-kontratupeko erregimenean erlijio-eskolak ematen dituzten langileak.

C) Eskualdaketa honek zein aurrekontu-kreditutan izango duen eragina.

Estatuko Administrazioari atxikita dauden baina Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zaizkion bitartekoak gehitzeari lotutako estatu-mailako gutzitiko kostua, 2011ko ekitaldian, 1. zerrendan biltzen da.

D) Eskualdatzearen eraginkortasun-data.

Akordio honen xede den bitartekoak gehitzea 2011ko uztailaren 1ean sartuko da indarrean.

Eta jasota gera dadin, ziurtapen hau ematen dute.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko ekainaren 22an.

Transferentzien Bitariko Batzordeko idazkariak,  
ANTONIO LÓPEZ SOTO.  
JUAN IGNACIO URRESOLA ARECHABALA.

«la regulación de su régimen laboral se hará con la participación de los representantes del profesorado». El Real Decreto 696/2007, de 1 de junio, regula la relación laboral de los profesores de religión prevista en la citada disposición adicional tercera de la Ley Orgánica 2/2006.

Además, por los Reales Decretos 2808/1980 y 3195/1980, de 26 de septiembre y 30 de diciembre respectivamente, se efectuaron los traspasos de las funciones y servicios a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de enseñanza no universitaria, en el que no se recogía el traspaso del profesorado de religión en centros públicos de educación infantil y primaria.

La disposición transitoria segunda del Estatuto de Autonomía para el País Vasco y el Real Decreto 2339/1980, de 26 de septiembre, establecen la forma y el procedimiento a que han de ajustarse los traspasos de servicios de la Administración del Estado a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Sobre las bases de estas previsiones constitucionales y estatutarias, procede completar el traspaso ampliando los medios personales que fueron objeto de traspaso por los Reales Decretos 2808/1980 y 3195/1980, de 26 de septiembre y 30 de diciembre, respectivamente.

B) Medios objeto de traspaso a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Se traspasa a la Comunidad Autónoma del País Vasco el personal que, en régimen de contratación laboral, imparte enseñanzas de religión en centros públicos de educación infantil y primaria ubicados en el territorio de la Comunidad Autónoma.

C) Créditos presupuestarios afectados por el traspaso.

El coste total anual a nivel estatal asociado a esta ampliación de medios adscritos a la Administración del Estado traspasados a la Comunidad Autónoma en el ejercicio de 2011, se recoge en la relación número 1.

D) Fecha de efectividad de la ampliación.

La ampliación de medios objeto de este acuerdo tendrá efectividad a partir del día 1 de julio de 2011.

Y para que conste, se expide la presente certificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de junio de 2011.

Los Secretarios de la Comisión Mixta,  
ANTONIO LÓPEZ SOTO.  
JUAN IGNACIO URRESOLA ARECHABALA.

1. ZERRENDA

Zerbitzuek estatu mailan guztira duten kostua (2011ko ekitaldiko aurrekontu-zuzkidurak)

		Mila eurotan
Estatu-mailako urteko guztizko kostua		264.416,65
Kopuru horretatik, 1. eta 2. kapituluak eta hurrengoak Hezkuntza Ministerioarenak dira:		
	Kapituluak	
18.01.322A	1	104.248,49
18.01.321M	2	15.637,27

RELACIÓN NÚMERO 1

Coste anual a nivel estatal (dotaciones ejercicio 2011)

		Miles de euros
Coste total anual a nivel estatal		264.416,65
De los cuales, corresponden a dotaciones del Ministerios de Educación, capítulos 1 y 2, los siguientes:		
	Capítulo	
18.01.322 A	1	104.248,49
18.01.321M	2	15.637,27